

LAUGARREN ORDENANTZA FISKALA

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. Artikulua.- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki-Ogasunak erregulatzen dituen Foru Arauean eta zergaren Foru Arau partikularrean aurrikusitakoaren arabera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineke Zerga, Ordenantza honi jarraiki, galdatzen du, eta horren zati banaezina den Eranskinean dator jasoa aplikagarri diren tarifen koadroa.

2. Artikulua.- Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

3. Artikulua.- Zergaren egitate zergagarriak izango dira honako hauek:

1.- Bide publikoetatik ibiltzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titularitatea izatea, edozein delarik ere horien mota eta kategoria.

2.- Zirkulaziorako gai dela joko da dagokion erregistro publikotan matrikulatua izan den ibilgailu oro, baldin eta ez bazaio bajarik eman aipatu erregistroetan. Zerga honen ondorioetarako, zirkulaziorako gai direla joko da, denboraldi baterako baimena eta matrikula turistikoa dutenak.

3.- Ez daude zerga honek zergapetuta:

- a) Modeloaren aintzinasunagatik erregistrotatik baja emanda leudekeen ibilgailuek, salbuespen gisa, zirkulatzeko baimena izan dezakete, mota horretakoentzat bakarrik antolatutako erakusketa, lehiaketa edo laisteketak antolatzen direlako arrazoiz.
- b) Trakzio Mekanikoko ibilgailuek errestan eramandako atoiak eta erdiatoiak, baldin eta horien karga erabilgarria 750 kilogramotik gorakoa ez bada.

III.-SALBUESPENAK

4. Artikulua.-

1.- Zerga ordaintzetik salbuetsirik egongo dira:

a) Ibilgailu ofizialak, direla horiek Estatukoak, Euskadiko Autonomi Elkartekoak, Bizkaiko Lurralde Historikokoak eta Toki Entitatekoak, baldin eta Defentsara edo hiritarren segurtasunera atxikirik baleude.

b) Diplomazi ordezkaritza, kontsul bulego, diplomazi agente eta akreditutako kontsul funtzionarioen ibilgailuak, haiek dagozkien herrialdeetako herritarrak izanik eta horiek kanpoaldetik identifikatuta egon, eta horren hedapen eta mailan, ordain bera izateko baldintzapean.

Halaber, Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko organismoen ibilgailuak, eta hor, diplomazi estatutua duten funtzionario edo kideenak.

c) Nazioarteko hitzarmen edo itunetan erabakitakotik horrela ondorioztatzen den kasuan barne sarturik leudekeen ibilgailuak.

d) Anbulatziak eta gainerako ibilgailuak, baldin eta zuzenean, osasun-asistentziara, edo zaurituak edo gaisoak garraitzera destinatuak baleude.

e) Artikulua. Mugikortasun murriztuko pertsonentzat diren ibilgailuak, Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. Eranskineko A letran agertzen den bezala, hori abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretu bidez onetsi zen (horrela direla joko da, horien pisu hila 350 kg.-tik gorakoa ez denean, eta ibilgailuaren sorrerako baldintzen arabera, zelaian, 45 km/or. baino abiadura handiagoa hartzen ez duenean, eta bereziki, ezgaitasun edo disfuntzio fisikoa lukeen pertsonaren erabilerarako proiektatua eta egina izatea –eta ez soilik egokitua–).

Halaber, salbuetsita daude ezindu baten izenean matrikulatutako **14 zerga zalditik beherako ibilgailuak**, ezinduak berak erabiltzeko direnak. Salbuespen hori, inguruabar horiek mantentzen diren heinean, aplikatuko zaie, bai minusbaliotasuna duen pertsonak gidatutako ibilgailuei, bai horien garraiara destinatutakoei.

Aurreko bi paragrafoetan aurreikusitako salbuespenak ez zaizkio aplikagarri izango, aldi berean, ibilgailu bat baino gehiagotatik, subjektu pasibo bati.

Atal honetan zedarritutakoaren ondorioetarako, hauexek hartuko dira pertsona ezindutzat:

A') %33eko eta handiagoko eta % 65eko edo txikiagoko minusbaliotasun-gradua onartuta, eta mugitzeko gaitasuna murriztuta duten pertsonak, eta halakotzat hartuko dira abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskineko baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak, horrek arautzen baitu minusbaliotasun-gradua ezagutu, deklaratu edo kalifikatzeko prozedura, edo aipatu baremoko D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenak.

B') %65eko edo handiagoko minusbaliotasun-gradua duten pertsonak.

Aurreko A') eta B') letretan barne sartuta dauden pertsonen, horiek A letrarekin kalifikatutako mugikortasun murriztuko egoera karentzian badaude aipatu 1971/1999 Errege Dekretuaren III. Eranskin bezala dagoen baremoan, ez zaie aplikagarri izango 14 zaldi fiskaleko muga, beti ere ibilgailua gorpil-aulkiarekin erabiltzeko egokitua badago.

2.- Orokorki, onartutako salbuespenak ondorioa, eskaria egin ondorengo hurrengo ekitaldian, izango du, baina ezingo du atzeraeraginik izan.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK.

5. Artikulua.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, gidatzeko baimenean ibilgailua noren izenean agertzen den kontuan izanik, martxoaren 10eko 2/2005 Zergaren gaineko FORU ARAU Orokorreko 34. artikuluari dagozkion bai pertsona fisikoak bai juridikoak bai Entitateak.

V. KUOTA.

6. Artikulua.-

1.- Zerga, Eranskinean dagoen tarifen koadroaren arabera, galdatuko da.

2.- Ibilgailuaren mota zehazteko orduan, araubidez erabakitakoa hartuko da kontuan, eta gainera, hurrengo arau hauek eukiko dira kontuan:

- a) Furgonetatzat hartuko da, pertsona eta gauzak garraitzeko helburuz egokitu den turismoko ibilgailua, horri zenbait aldaketa egingo zaizkio baina jatorrizko modeloa funtsean aldatu gabe, hala, eserlekuak eta kristalak kendu eta neurria aldatu edo ateen antolaketa edo beste edozein aldaketa egingo zaio. Furgonetari turismoaren

zerga bera aplikatuko zaio, bere indar fiskalaren arabera, hurrengo kasu hauetan izan ezik.

LEHENENGO.- Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago garraitzeko gaitua egongo balitz, gidaria barne dela, autobusaren zerga izango du.

BIGARREN.- Ibilgailua 525 kilogramo baino gehiagoko karga baliagarria garraiatzeko gaitua egongo balitz, kamioiaren zerga izango du.

- b) Zerga honen eraginetarako, motokarroek motozikleta kontsiderazioa izango dute, eta beraz, horien zilindradak duen indarraren arabera ordainduko dute.
- c) Ibilgailu artikulatuen kasuan, aldi berean bainan banandurik ordainduko dute zerga-zorra, garraitzeko ahalmena duenak batetik eta garraiatutako atoiak eta erdi-atoiak bestetik.
- d) Duten kapazidadeagatik matrikulatu beharrik gabeko ziklomotore, atoi eta erdi-atoiaren kasuan, Administrazioako eskudun organoak beharrezko ziurtagiria ematen duen momentutik, edo kasua balitz, benetan zirkulazioan daudenetik, zirkulatzeko gai direla joko da.
- e) Bide publikoetatik ibili daitezkeen autopropulsiatutako makinei, garraiatuak edo arrastran eramanak izateko beste trakzio mekanikoko ibilgailurik ez badute behar, traktoreen tarifa aplikatuko zaie.
- f) Quad ibilgailuek, edo traktore moduan (ibilgailu berezia) bere potentzia fiskalaren arabera, ordainduko dituzte zergak, edo ziklomotore edo motozikleta bezala (kuadrizikloak) horien zilindradaren arabera, hori guztia bere fitxa teknikoan agertzen den ibilgailu-motaren arabera.
- g) ibilgailu-etxebizitzak eta autokarabanak turismoak izango balira bezala ordainduko dituzte zergak, horien potentzia fiskalaren arabera

3.- Honako hobari hauek aplikatuko dira:

- A) Propulsiio hibridoa duten ibilgailuei dagokien kuotaren% 50 (errekuntza-motorraren eta motor elektrikoaren konbinazioa)
- B) Ibilgailu elektrikoak aplikatu beharreko kuotaren% 95.
- C) 5 plaza edo gehiago dituzten autoak aplikagarri zaien kuotaren % 50. Hobaria ibilgailu bakarrari aplikatuko zaio, betiere, auto horren titularra indarreko legeriaren arabera familia ugartzat jotako baten kide bada.
- D) Kuotaren % 50 ibilgailu historikoentzat edo gutxienez hogeita bost urteko antzinatasuna dutenentzat, fabrikazio-datatik aurrera zenbatuta, edo, fabrikazioa ezagutzen ez bada, lehenengo matrikulazioaren hartuta halakotzat, edo, bestela, dagokion mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaien data.

Aipatutako hobariak ez dira aplikatuko hala eskatzen ez bada, eta elkarren artean bateraezina izango dira. Eskaera egin zen ekitaldiaren hurrengoan gauzatuko dira eta 4 urteko indaraldia izango dute eta .

- Familia ugariaren hobariak, bestalde, indarrean jarraituko du familia-unitateak izaera hori mantendu eta kide guztiak Basauriko ohiko etxebizitzan erroldatuta dauden bitartean. Subjektu pasiboak aldaketen berri eman beharko du eta administrazioak, bere aldetik, hobaria ezartzeko baldintzak betetzen ote diren egiaztatu ahal izango du ofizioz eta, hobaria bidegabeki disfrutatuta dela egiaztatuko balu, zergari dagozkion likidazio gehigarriak eta berandutze-interesak bidaliko

dizkio subjektu pasiboari. Horrez gain, legokiokoen zigorra ere ezarri ahal izango dio, egitate hori zerga arau-haustea litzateke eta. Hala ere, egin daitezkeen aldaketen kalterik gabe, familia ugariaren titulua iraungitzen den data hartuko da hobariaren amaiera data bezala.

- Ibilgailu historikoen edo 25 urtetik gorako antzinatasunaren kasuan, hobaria indarrean egongo da ibilgailuaren dokumentazio teknikoarekin zirkulatzeko gaitasuna egiaztatzen den bitartean, eta titularrak horren inguruko edozein aldaketa jakinarazi beharko du.

Aurrean aipatutako hobariren bat lortu ahal izateko, eskabidearekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- 1.- Eskatzailearen IFZren fotokopia.
- 2.- Hobaria zein ibilgailutarako eskatzen den.
- 3.- Zerga-hobaria eskatzen den ibilgailuaren ezaugarri teknikoen egiaztagiaren kopia.
- 4.- Familia ugariaren hobaria jasotzeko, aurrekoen gain honako hauek ere aurkeztu beharko dira:
 - a) Familia ugariaren kide guztiak ohiko etxebizitzan erroldatuta daudela jasotzen duen egiaztagiria.
 - b) Familia ugariaren titulua, Bizkaiko Foru Aldundiak emandakoa

VI. ZERGA-ALDIA ETA SORTZAPENA.

7. Artikulua.-

1.- Zergapezko epealdia urte naturalarekin bat etorriko da, ibilgailuen lehen eskuraketa edo baja kasuetan izan ezik. Kasu horietan, eskuraketa egiten den egunean hasiko da zergapenezko epealdia edo Trafiko Buruzagintzan baja ematen den egunean amaituko da, hurrenez hurren.

2.- Zerga, zergapezko epealdiaren lehen egunetik sortzen da.

3.- Ibilgailua lehenengo bider erosten den kasuan, edo horien baja gertatzen den kasuan, zergari dagokion kuotaren zenbatekoa hainbanatu egingo da hilabete naturaletan, eta barne sartuko da alta edo baja gertatzen den datari dagokiona.

4.- Kuoten hainbanaketa modu berean egingo da baita, aldibateko baja gertatzen denean, ibilgailua lapurtu edo ebesteagatik, eta hori egingo da, aipatu baja, dagokion Erregistro publikoan gertatzen den une beretik.

VII. KUDEAKETA.

8. Artikulua.- Kudeaketa, likidazioa, ikuskaritza eta bilketa, hala nola zergaren kudeaketaren gainean eman diren egintzen berrikustea, ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen den helbidea kontuan izanik, hor agertzen den Udalari dagokio.

9. Artikulua.- Udalak zerga hau eskatzekoan autolikidazio erara eskatzeko aukera izango du.

10. Artikulua.- Zergaren ordainketa egiaztatzeko instrumentutzat hartuko da, Udal Administrazioak luzatutako ordainagiria.

11. Artikulua.- Zergaren ordainketa ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilabete barruan egingo da, ez badira behintzat hurrengo artikuluan azaltzen diren kasuak, horrela balitz, hor dioena hartu beharko da kontuan.

12. Artikulua.-

1.- Trafiko Buruzagintzan ibilgailuaren matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasunaren ziurtapena edo behin-betiko baja eskatzen dutenek, aurretik, zerga ordaindu dutela egiaztatu beharko dute. Egiaztatzeko aipatu obligaziotik salbuetsita dago, hamabost urte edo gehiago dituzten ibilgailuen behin-betiko bajen kasua.

2.- Aurreko obligazio bera izango dute ibilgailuen titularitatea duten pertsonak, Trafiko Buruzagitzari jakinarazten diotenean horien berrikuntza egin dutela, baldin eta zerga honen ondorioetarako horren sailkapena aldatzen bada, eta baita transferentzia egiten bada, eta ibilgailuaren zirkulazio-baimenean dagoen helbidea aldatzen bada.

3.- Trafikoko Buruzagitzak ez ditu ibilgailuen baja edo transferentzi espedienteak izapidetuko, aurretik ez bada zergaren ordainketa egiaztatu.

13. Artikulua.- Matrikulazio berria denean edo ibilgailuan aldaketak egin direlako, zergaren ordainketari dagokionez, sailkapena aldatua suertatzen denean, interesatuek, Udal Administrazioan, hurrengo dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, Zergaren Matrikulan sartzeko helburuz, matrikulazioaren edo aldaketaren datatik hasita, hogeita hamar laneguneko epean:

- a) Zirkulazio baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen egiaztagiria.
- c) Titularraren N.A.N. edo Z.I.K.

VIII.- XEDAPEN GEHIGARRIA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO ELKARRERAGINGARRITASUNA

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko eskubidea dute interesdunek. Basauriko Udalaren zerbitzu/sail eskudunak elektronikoki kontsultatu edo bildu ahal izango ditu dokumentu horiek, datuen bitartekotza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez. Arrazoi teknikoak direla eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, izapideak egiteko behar diren dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango zaio interesdunari.

2. Zilegi da datu pertsonalen tratamendua egitea, interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzean edo Basauriko Udalari emandako botere publikoak gauzatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Datuak minimizatzeko printzipioarekin bat etorritik, datu egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurria mugatuak bakarrik eskatuko dira, datu horiek tratatzeko helburuen arabera (DBEO, 5.1.c artikulua).

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehenengo.-

Toki Zergen Erregimena Aldatzeari buruzko 7/2003 Foru Araua indarrean sartu aurretik hasitako prozedurei ez zaie arau hori aplikatuko, eta hori horrela, aurreko arautegia aplikatuko zaie.

Bigarrena.

7/2003 Foru Araua indarrean sartu aurretik, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergatik salbuetsia egon zitekeen ibilgailuak, hain zuzen, ekainaren 30eko 7/1989 Foru Arauaren aurreko idazketan zioena aplikatzearen ondorioz salbuespena zuenak, arau horrek arautzen baitzuen zerga hori, baldin eta 7/2003 Foru Arau honek emandako idazketa berrian, salbuespena izateko finkatu diren baldintzak ez balitu beteko ere, salbuespena izateko eskubideari eutsiko lioke, ibilgailu horrek, aurreko idazketan salbuespena izateko finkatu ziren baldintzei, eusten dien bitartean.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza horri behin-betiko onespena eman zitzaion, eta indarrean sartuko da 2007ko urtarrilaren 1ean, eta indarrean jarraituko du, hori aldatzea edo baliogabetzea erabaki arte.

(2009ko irailaren 24an Udalbatzak aldatuta)
 (2011eko azaroaren 11an Udalbatzak aldatuta)
 (2012eko azaroaren 19an Udalbatzak aldatuta)
 (2013eko azaroaren 19an Udalbatzak aldatuta)
 (2013eko urriaren 29an Udalbatzak aldatuta)
 (2016ko azaroaren 24an Udalbatzak aldatuta)
 (2017ko urriaren 26an Udalbatzak aldatuta)
 (2018ko urriaren 25ean Udalbatzak aldatuta)
 (2019ko urriaren 30ean Udalbatzak aldatuta)
 (2020ko urriaren 29an Udalbatzak aldatuta)
 2022ko urriaren 27an Udalbatzak aldatuta)

ERANSKINA	
TARIFAK	
IBILGAILU MOTA ETA EZAUGARRIAK	KUOTAK (€)
A.- AUTOAK:	
8 ZF-tik beherakoak	25,20
8 ZF-tik 11,99 ZF-raino	68,00
12 ZF-tik 13,99 ZF-raino	121,20
14 ZF-tik 15,99 ZF-raino	178,60
16 ZF-tik 19,99 ZF-raino	233,00
20 ZF-tik gorakoak	303,00
B.- AUTOBUSAK:	
21 eserlekutik beherakoak	163,60
21 eserlekutik 50 eserlekura	233,00
50 eserlekutik gorakoak	291,30
C.- KAMIOIAK:	
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria	83,00
1.000 kg-tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria	163,60
2.999 kg-tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria	233,00
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria	291,30
D.- TRAKTOREAK:	
16 ZF-tik beherakoak	34,70
16 ZF-tik 24,99 ZF-ra	54,50
25 ZF-tik gorakoak	163,60
E.-TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEK HERRESTAN ERAMANDAKO ATOIAK ETA ERDI-ATOIAK.	
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria	34,70
1.000 kg-tik 2.999 kg-ra arteko karga erabilgarria	54,50
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria	163,60
F.- BESTE IBILGAILU BATZUK:	
Ziklomotorrak	9,10
125 c ³ -rainoko motozikletak	9,10
125 c ³ -tik 250 c ³ -ra arteko motozikletak	15,60
250 c ³ -tik 500 c ³ -ra arteko motozikletak	31,20
500 c ³ -tik 1000 c ³ -ra arteko motozikletak	66,90
1000 c ³ -tik gorako motozikletak	138,80